

auzo^z auzo • auzo^z auzo • auzo^z auzo

aiete


Manuel Matxainen omenez

topalekun egingo den bertso afari baten bidez omenaldia egingo zaio Manuel Matxaini, uztailaren 29an, larunbata gaueko 21.00etan. Manuel Matxain aietearra kirolari ona izateaz gain bertso idatzitan nabarmendu izan da. Joxe Lizaso, Joxe Aierbe, Jose Luis Gorrotxategi eta Mañukorta bertsolariak dira afalostean bertso-tan jardungo dutenak, eta gaijartzailea Carlos Aizpuru izango da.

Bertsolari Elkarteak Donostian antolatzen duen «Donostia Bertso-tan» kanpainako bertso saioetatik lehenengoa izango da hau, aurten guztira lau egingo direla.

Bertso afarira auzokide guztiak daude gonbidatuta. Izena ematen animatzen den bakoitzak 1.500 pezeta ordaindu beharko ditu. Menua arrain-zopa, legatza, postrea eta kafe konpletoa izango da.

IÑAKI EGUREN (TFNOA.: 212458)
ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ



Muntoko lotura

Amara-lbaeta biala izango denaren lanak aurrera darraite. Argazkian ikusten denez Munto parean desbideratu egin dute bidea, eta beraz ez dago orduko 20 km-ko abiadura igaro beste aukerarik. Obrak datorren urteko ekainean bukatzea dago aurreikusia, baina Munto pareko lotura lehenago bukatuko dute noski.

herrera

Eserlekuak tokiz aldatu dituzte San Luis plazan. Nahiz eta betidanik izan diren bertan, beren kokaguneak eztabaida ugari sorrarazi izan ditu. Auzo elkartearen eta hainbat auzokideren iritziz, plazako tokirik txarrean zeuden eserleku hauek. Azkenik, Udalak lekuz aldatu ditu, bat itzalean jarri du eta besteak eguzkitan.

Jose Elozegi ibilbidea, alegia N-1 errepi-dea, zabaldu egin dute

Errenterirako norabidean. Izan ere, jaitsierako norabidean bi karril zeuden lehen eta orain berriz hiru. Gainera zebra pasabidea jarri dute, eta neurri handi batean gure auzoak duen trafiko arazo larriak hobera egin du. Errepide arteko auzoa dugu Herrera eta trafiko arazoez guregan duten eragina erabat ezabatzea zaila izango da. Hala ere, Udalak ahalegin horretan jarraitzea eskertuko genuke.

Bolo taldea eratu du berriro ere Euskal Giroa Elkarteak. Lehenagotik elkarte honek emakume bolo taldea zuen. Aurre-rago umeentzako taldea eratu zen, Elena, Maria Jesus eta Milaren lanari esker, baina azken urte-tan, poliki-poliki taldea desegin egin zen eta hainbat urtetan bolatoki kaxkar batekin talderik gabe egon gara. Hurrengo ikasturterako taldearen era-keta iragarri da.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

IMEN
enkuadernazio gauzetan denetarik

ikasketa plaza, 6 • tfnoa.: 46 05 71



URKO

Gas instalakuntzak

- iturgintza
- kalefakzioa

Madrid hiribidea 10 • Tfnoa.: 45 30 89